

Seiluak, Pio Baroja eta Bilintx omentzeko

Bi donostiarrei buruzko erakusketa dugu hilaren 24ra arte

Asier Leoz

Gipuzkoako Filatelia eta Numismatika Elkartek antolatutako erakusketan, Pio Baroja eta Indalezio Bizkarrondo Bilintx omendu nahi izan dituzte, hil zirenetik 50 eta 130 urte bete diren honetan. Horretarako, elkarteko presidente Jose Angel Lopezek adierazi duenez, Bilboko eta Bartzelonako bildumazaleek utzitako seiluak bildu dituzte, baina baita material gehiago ere, erakusketa osatzen duten 25 bitrinetan bisitarien kuriositatea asetzeko nahi adina elementu egon dadin. Elkartek sortzaile bakoitza omentzeko seilu-markak egin ditu, baita ere, eta ezagutzen den Bilintxen argazki bakarra ekarri du Udal Liburutegira, Aranzadi Elkartek utzia. Aurretik ere ibili dira Filatelia eta Numismatika Elkartean Donostiako pertsonaiei omenaldiak antolatzen, Usandizaga eta Peñaflorida kasu. Historia ulertzeko gakoa

Erakusketak Euskal Herriko historiari buruzko errebaso interesgarria dakar. Jose Angel Lopez jaunak esan duenez, gure historia ezagutzeko modu paregabea dira seiluak. Zentsurarik zegoen ala ez jakin daiteke, edo zein erregek gobernatzen zuen eta nola.

Jose Angel Lopezen arabera, seiluak koadro zaharrak bezalakoak dira; urteek aurrera egin ahala gero eta balio handiagoa daukate. Horregatik seilu bildumak osatzeak lan handia eskatzen du. Gaztearen interes faltaz ere aritu zaigu: Garai batean egundoko afizioa zegoen Gipuzkoan seilu bildumak osatzeko, baina tamalez gaur egungo gazteek nahiago dute gauza modernoagoekin aritu, seiluak bildu baino. Honi buruz galdetuta, Filatelia eta Numismatika Enpresarien Elkarteko Antonio Vivar jaunak, Lasala Plazako dendan aspalditik seiluak erosten eta saltzen dabilenak, beste iritzi bat bota digu: Gaur egun seiluak adin batetik gorako jendeak besterik ez ditu biltzen. Correos erakundeak seiluei jartzen dien prezioa ezinezkoa da gazteentzat; askoz ere errazagoa da haientzat txanponak biltzea. Seilu erakusketa irailaren 24a bitartean izango da Udal Liburutegian ordutegi honekin: astelehenetik larunbatera, arratsaldeko bostetatik gaueko bederatziak arte. Igandetan berriz, goizeko hamaiketatik arratsaldeko ordu biak arte.